

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2013

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Debagoieneko Mankomunitatearen 2013ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak legezkotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, diru-sarrera, finantza-eragiketa, langileria eta ondasun eta zerbitzuen kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkotasunaren atalean, Epaitegiak Mankomunitatearen jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honen gainean salbuespen bat egin da hornidurazko bi kontraturen egikaritzari dagokionez, balioetsitako balioarekiko ehunekoetan % 33 eta % 88ko egikaritza handiagoa izan dutelako, lehiaketaren oinarritzko baldintzak eraldatuz; gainera, horietako bitan, egoki balioetsiz gero, lizitazioa DOUEn argitaratu beharko zatekeen.

Mankomunitatearen Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Diruzaintza Geldikina eta Funtz Propioak 2,2 mila euroan murriztu dituztenak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria eta kontratazio ataletan.

Azkenik, 2011-2013 aldiko finantza analisiari dagokionez, HKEEk adierazi du hondakinak jasotzeko eskualdeko zerbitzua dela Mankomunitateak ematen duen zerbitzu nagusia eta batik bat udal ekarpenen bitartez finantzatzen dela, zerbitzuaren sarrera eta gastu aurreikuspenak abiaburu hartuta kalkulaturakoak; egokitasun eza dago bilketa sistema berria ezartzearen balioespenetan, 2012 eta 2013ko superabitak eragin dituztenak. Bilketa sistema berria 2011z geroztik dago abian Antzuolan eta Oñatin 2013ko uztailean abiarazi zen; horrek, egindako ondasun eta zerbitzu erosketen ondorioz, funtzionamendu gastuak nabarmen haztea ekarri du.

